"ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN–EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA–NEXTGENERATION EU

NEXT GENERATION FINANTZAKETA DUEN PROZEDURA NEGOZIATUA

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2024KO190001

KARATULA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

Oiartzungo Udalak, Ongizate sailaren bidez, martxan duen "Zaintzadi, zaintza ekosistema publiko-komunitarioa sortzeko proiektua" gauzatzeko zerbitzua ematea.

Proiektuaren helburua nagusia da baliabide gutxi dituzten eta hurbileko senide edo inguruko pertsonen laguntza jasotzen ez duten 55 urtetik gorako Oiartzungo herritarren behar sozial eta psikikoei erantzuteko esku-hartze sozio-hezitzaile eta komunitarioa aurrera eramatea.

Horretarako, bakardade egoera zaurgarrian dauden pertsonak detektatu, beren beharrak eta motibazioak ulertu eta horiei egokitutako plan pertsonalizatu eta progresiboak jarriko dira martxan, komunitateko gainontzeko kideekin harremana sustatuz, Udalak zein herriko eragileek eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa eskainiz (herriko kultura eta kirol eskaintza, bertako elkarteak eta zerbitzu publikoak azalduz) eta hauetan parte hartzea hauspotuz, etorkizunean bere bizitza komunitatean modu autonomoan garatu dezan.

Erabiliko den esku-hartze eredua da berezitasun nagusia, izan ere, babesgabetasun egoerei aurre hartuko zaie herritarrekin elkarlanean. Hortaz, beharrezkoa izango da herriko eragile eta norbanakoen parte-hartzea zaintza sareak sortu eta bakardade egoerak detektatu eta lantzeko, besteak beste, auzozain figuraren bidez. Auzozainek, hain zuzen, bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonen berri edo jadanik proiektuan parte hartzen dutenengan sor daitezkeen ezohiko egoeren berri emango dute eta, gainera, proiektuan parte hartzen dutenekin eguneroko jarduera ezberdinak egiteko aukera izango dute.

CPV kodea:
75200000-8 Gizartearentzat zerbitzuak ematea
85310000-5 Gizarte-laguntzako zerbitzuak
85311100-3 Adinekoei emandako gizarte-ongizateko zerbitzuak

Kontratu honen xede diren prestazioak berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko programaren esparruan gauzatuko dira, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Plan hori Europar Batasunak finantzatzen du – NextGenerationEU.

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Negoziatua, Next Generation finantzaketarekin. Lizitazio elektronikoa.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:
Presazko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

4.1. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa honakoa da:
Urteko 105.879,48 eurokoa.

SPKLren 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren banakapena honako hau da:

Kostu zuzenak	87.944,63 €
Zeharkako kostuak	12.658,17 €
Etekin industriala (%6)	5.276,68 €
GUZTIZKO KOSTUA/URTEKO	**105.879,48 €**
BEZ (% 0)	0,00 €
GUZTIZKO KOSTUA/URTEKO	**105.879,48 €**

4.2. Kontratuaren balio zenbatetsia honakoa da:
423.517,92 euro, honako kopuru hauetan banatuta:
- Hasierako iraupena: 105.879,48 euro
- Aurreikusitako luzapenak: 317.638,44 euro

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:
Urte batekoa. Kontratuaren hiru luzapen aurreikusten dira, bakoitza urte batekoa.

6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:
Ez da eskatzen.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA:
Esleipenaren zenbatekoaren % 5aren baliokidea, BEZ gabe.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
10 egun natural, gonbidapen idatzia jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

9.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:
Oiartzungo Udaleko Kontratazio Profilean www.oiartzun.eus en.

10.- ALDAERAK:
Ez dira onartzen.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

11.- KAUDIMENA:

11.1. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa honela egiaztatu beharko da:

Kontratatu nahi den eremuan, **urteko negozio bolumenak**, azken hiru urteetan bolumen handieneko urteari dagokionak, gutxienez 600.000 eurokoa izan beharko du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez -onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak- egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

11.2. Kaudimen tekniko edo profesionala honela egiaztatu beharko da:

Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, adieraziz zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, hauetan zehaztuz, erakunde publiko edo pribatuarentzako.

Hori egiaztatzeko organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa kontratuaren xede den zerbitzuaren izaera bereko edo antzekoetan 74.115,63 eurokoa izatea. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede den zerbitzuaren arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

11.3. Kontratura atxikitu beharreko gutxieneko giza baliabideak:

Horrez gain, kontratura atxikitu beharko dira, gutxienez, honako giza baliabideak, Baldintza Teknikoen Agirian jasotakoarekin bat:

- Koordinatzaile teknikoa, astean lau orduz.
- Bi gizarte hezitzaile, lanaldi osoan.

Giza baliabide horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Soziologiako, Psikologiako edo Pedagogiako unibertsitate gradua izatea
- Euskarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (3. Hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea)

Esleipendunak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak beteko dituztela. Halaber, hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman beharko du.

Horrez gain, Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko ordezkari arduradun bat izendatuko da (koordinatzaile teknikoa edo hezitzaileren bat izan daiteke). Ordezkari arduradun horrek, gai teknikoei eta gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du, eta enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

Betebehar honek kontratuaren funtsezko betebehar izaera izango du, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta, beraz, ez betetzeak zehapenak ezartzea edo kontratua suntsitzea ekar dezake.

12.- NEGOZIAZIORA GONBIDATUKO DIREN ENPRESEN KOPURUA ETA NEGOZIATUKO DIREN ALDERDIAK:

Gutxienez hiru enpresa gonbidatuko dira negoziaziora.

Negoziatuko diren alderdiak:

- Prezioa
- Egin beharreko lanak aurrera eramateko metodologiak.
- Proiektua gauzatzeko zerbitzuaren diseinua eta inplementazioa egiteko modua: arreta zuzeneko eta eremu komunitarioko lan-eremuetako eginbeharren planteamendua eta egin beharreko lanak aurrera eramateko planteamendua.
- Lanen planifikazioa eta antolakuntza egiteko modua.
- Eskuratutako datuen eta informazioaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko modua.

13.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

13.1. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK.....55 PUNTU

a. Proposamen ekonomikoa..... 25 puntu

Lizitatzaileek aurkezturiko eskaintzarik ekonomiko baxuenari 25 puntu emango zaizkio, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duenari 0 puntu. Gainerakoak honako formularen arabera baloratuko dira:

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

$$\text{Puntuaketa} = \frac{Pb}{Po} \times 25$$

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Pb= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak.

b. Hezitzaileen eskarmentua esku-hartze komunitarioan…….....10 puntu

Hezitzaile bakoitzaren urte bakoitzeko eskarmentuagatik puntu 1 emango da, eta gehienez 10 puntu eskuratu ahal izango dira.

c. Hezitzaileen eskarmentua akonpainamendu sozio hezitzailetan……..……10 puntu

Hezitzaile bakoitzaren urte bakoitzeko eskarmentuagatik puntu 1 emango da, eta gehienez 10 puntu eskuratu ahal izango dira.

d. Formazio gehigarria bakardadean eta/edo esku-hartze komunitariotan eta/edo adinekoekin esku-hartzetan eta/edo genero berdintasun arloan……..…….. 10 puntu

Hezitzaile bakoitzaren 20 orduko formazio bakoitzeko puntu 1 emango da, eta gehienez 10 puntu eskuratu ahal izango dira.

13.2. BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK.....45 PUNTU

Aurkeztutako memoria teknikoak baloratuko dira, besteak beste, jarraian zehazten diren puntuak landu beharko dituztenak, ezarritako atal eta azpiataletan banatutako egitura berbera errespetatuz:

a. Oinarritze teorikoa……...……..….. 10 puntu

Zerbitzua emateko oinarri teorikoaren lanketa baloratuko da. Bereziki, pertsonengan oinarritutako arreta emateko metodologia, hautazkoa ez den bakardadea lantzeko metodologia eta komunitatean eta komunitatearekin inklusio bideak lantzeko metodologia.

b. Proiektua gauzatzeko zerbitzuaren diseinua eta inplementazioa…….....…..... 25 puntu

Proiektua gauzatzeko zerbitzuaren diseinua eta inplementazioa egiteko modua baloratuko dira. Zehazki, proiektuaren helburu nagusiak nahiz zehatzak kontuan izanik, eta horiek betetzeko, arreta zuzeneko eta eremu komunitarioko lan-eremuetako eginbeharren planteamendua eta aplikatzeko modua baloratuko dira, Baldintza Teknikoen Agirian

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

zehaztutakoa oinarritzat hartuta.

Horrela, bada, esku-hartze sozio-hezitzailearen zerbitzua aurrera eramateko proposatutako planteamendua eta modua baloratuko dira, baita komunitatea aktibatzeko zerbitzuarena ere.

Besteak beste, erabiltzaileak erakartzeko proposamenak, herri eragileak saretzeko proposamenak, prebentziorako ekintzen proposamenak, zeharkako lerroen lanketa eta zaintza sare informalaren nahiz formalaren aktibazio proposamenak baloratuko dira.

c. Lantaldearen antolakuntza…… 5 puntu

Proiektua gauzatzeko eta ondorioz kontratuaren xede den zerbitzua emateko egin beharreko lanen urteko planifikazioa eta lantaldearen antolakuntza baloratuko dira, langile bakoitzaren funtzioen zehaztapenarekin, baita Oiartzungo Udaleko Ongizate sailarekin elkarlanean eta koordinazioan aritzeko moduak eta bideak ere, Baldintza Teknikoen Agirian jasotakoez gain.

d. Ebaluazio sistema……...……...…… 5 puntu

Proiektua gauzatzean eta ondorioz kontratuaren xede den zerbitzua ematean lortutako datuak eta informazioa jasotzeko eta kudeatzeko modua baloratuko da, baita datu eta informazio horien jarraipena eta ebaluazio kualitatiboa nahiz kuantitatiboa egiteko proposatutako moduak ere, Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutakoa kontuan hartuta.

Memoria teknikoak DIN A4 formatuko 75 orri hartuko ditu gehienez. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzen duten azalak eta aurkibideak. “Times New Roman” motako letra erabili beharko da, 12 neurrikoa.

Agiri honetan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо. Gehieneko luzera gaindituz gero, edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

Balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan, enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea. Hala, lizitazioan jarraitzeko beharrezkoa izango da gutxienez 22,5 puntu lortzea irizpide hauen balorazioan.

14.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK:

- Bete beharreko gutxieneko lan baldintzak.
- Bete beharreko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagozkionak.
- Bete beharreko gutxieneko hizkuntza baldintzak.
- Europar Batasunaren NextGenerationEU finantzaketaren baitan bete beharrekoak.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea karatularen 1. atalean zehaztutakoa da, Baldintza Teknikoen Agirian, baldintza agiri honetan eta kontratuaren esleipenduna gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan, zeinak kontratuzko izaera izango duten.

2.- Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera, karatularen 1. atalean zehaztutakoa da.

3.- Kontratu honen xedeak lote bakarra osatzen du.

4.- Ez da eskaintza alternatiboen proposamenik onartuko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena karatularen 5. atalean zehaztutakoa da.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA

1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia karatularen 4. atalean zehaztutakoak dira.

2.- Lizitatzaileek lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren kopurutik beherako eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz eta finko bat proposatuz.

3.- Interesatuek egiten dituzten proposamenetan sartuko dira, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, baita kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa aurreikusia dago, aurtengo ekitaldiko ondorengo aurrekontuaren partidaren kargura: 1 0341.227.231.00.97 2024 (5778).

Edonola ere, kontratu honen xede diren prestazioak berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko programaren esparruan gauzatuko dira, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Plan hori Europar Batasunak finantzatzen du – NextGenerationEU.

Hau da, kontratuaren xede diren prestazioak Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen ditu, COVID-19aren krisiaren ondorengo errekuperazioa laguntzeko Europar Batasuneko Berreskuratze Tresna ezartzen duen

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduaren, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren eta gaiaren inguruko Europar Batasuneko gainerako arauen eta horiek garatzeko edo transposizioa egiteko estatuko arauen baitan.

Era berean, kontuan hartu behar dira, bereziki:

- Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzaren 2021eko urriaren 19ko Ebazpena, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako hitzarmena argitaratzen duena.
- Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzaren 2022ko urriaren 26ko Ebazpena, Autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde banaketa onartzeari buruzko Akordioa argitaratzen duena, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 22. Osagaiaren –"Zaintza ekonomia eta berdintasun eta gizarteratze politikak indartzea"- esparruko inbertsio proiektuak finantzatzeko kredituak Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren mende jartzeko.
- Diputatuen Kontseiluaren 2023ko irailaren 12ko erabakia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan gizarte berrikuntzako proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, espezifikoak eta 2023ko deialdia onartzen dituena (Gipuzkoako Foru Aldundia, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua).
- 2023ko abenduaren 29ko 773/2023 Foru Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan gizarte berrikuntzako proiektuetarako dirulaguntzen 2023ko deialdia ebazten duena (Gipuzkoako Foru Aldundia, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua).

Zehazki, kontratu honen xede diren prestazioei dagokienean Europar Batasunak finantzatzen duen zenbatekoa – NextGenerationEU -, 2024. urtean, 50.288,40 eurokoa. Zenbateko hori justifikatu egin beharko da.

Kontratuaren sailkapena Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean:

- Osagaia: 22. Zaintza ekonomia eta berdintasun eta gizarteratze politikak indartzea.
- Neurria: C22.I2. Gizarte Zerbitzuak Modernizatzeko Plana: Eraldaketa teknologikoa, berrikuntza, prestakuntza eta haurren arreta indartzea.
- Mugarriak eta helburuak: 325. Mugarria: Gizarte-zerbitzuak teknologikoki eraldatzeko eta egoitza-babesari eta harrera-familiei lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak modernizatzeko proiektuak gauzatzea. Mugarri horrek eskatzen du gobernu autonomikoek gizarte-zerbitzuen eraldaketa teknologikoa egitea, zerbitzu horiekin elkarreragiten duten beste sistema batzuekiko elkarreragingarritasuna ahalbidetzeko (enplegua, osasuna, hirugarren sektorea), baita haur eta nerabeentzako arreta-zentroetan egoitza-babesari lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak modernizatzeko ere, besteak beste, laguntza pertsonalizatuko premiak gehiago kontuan hartuta (emozionalak eta hezkuntza- eta lanbide-arlokoak barne)

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

eta harrera-familiei prestakuntza eskainita, gutxienez 450.000.000 euroko aurrekontu exekutatu batean.

- Mugarrien eta helburuen egiaztapen mekanismoa: mugarria behar bezala bete izana justifikatzen duen laburpen-dokumentua (mugarriaren elementu egokiak barne, CID eranskineko mugarriaren eta neurriaren deskribapenean adierazten den bezala). Dokumentu horrek, eranskin gisa, kalkulu-orri bat izan beharko du, jardueren deskribapenarekin osatutako esku-hartzeen kode ofizialen zerrenda jasotzen duena, CIDen ezarritako mugarriaren eta inbertsioaren deskribapenarekin bat datozela frogatzen duten alderdiak, BEZik gabe gauzatutako aurrekontua eta gauzatze-data barne.
- AO helburuak (Europako Batzordearen eta Espainiaren arteko Araubide Operatiboa): mugarriak ez du tarteko AOrik.
- Etiketatze klimatikoa: jarduerek ez dute etiketatze klimatikorik lotuta.
- Etiketatze digitala: 011 esku-hartze eremua aplikatzen da, Administrazioarentzako IKT soluzioak, zerbitzu elektronikoak, aplikazioak, % 100eko koefizientearekin.
- Jardueren amaiera data: 2024ko azaroaren 30a.

Ez dago finantzaketa bikoitzik kontratu honetan.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioaren ordainketa hileroko ordainketa bidez egingo da. Aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori kontratuaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko du, eta hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Halaber, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki beharko ditu, eta fakturaren xedearen hasieran, aipatu beharko da Next Generation funts europarren finantzaketa, ondorengo adierazpenaren bidez: “Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU”.

Faktura onartu eta gero, SPKLren 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

Nahiz eta enpresa esleipedunak kontratua sinatu baino lehen azpikontratistak identifikatu behar dituen, eta beren IGEAk sinatuta aurkeztu, beti ere lanak gauzatzen hasi aurretik, kontratua gauzatzen den bitartean azpikontratisten zerrendan aldaketaren bat gertatzen bada, berehala jakinarazi beharko dio Udalari, erregistro bidez, enpresa horren IGEArekin batera, azpikontratista berriak sartzen badira.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Alde horretatik, faktura bakoitzarekin batera erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da, azpikontratisten zerrendak aldaketarik ez duela izan adieraziz, edo aldaketaren bat egon bada, enpresa kontratistak azken azpikontratista guztiak identifikatu beharko ditu, horien guztien IGEA beterik eta sinatuta aurkeztuz, baldintza agiri honen **IV. Eranskineko** ereduaren arabera. Baldintza horiek bete ezean, atxiki egingo da fakturaren ordainketa.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da prezioaren berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko bermea: ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratu honen lizitazioan proposamenik onena aurkezten duen eskaintzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea 5 egun baliodunekoa izango da, agiri honetako 12.2 klausulan aipatzen den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, SPKLren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEIPENAREN PROZEDURA

SPKLren 167.f) artikuluan xedatzen denez, gizarte zerbitzu oso pertsonaletako kontratuetan, horien ezaugarri erabakigarrienetako bat pertsona gizarte-arretaren ingurunean errotzea denean, betiere kontratuaren xedea lehendik zerbitzu horren onuradun ziren pertsonei arreta ematen jarraitzea baldin bada, kontratua lizitazio prozedura negoziatuaren bidez esleitu ahal izango da.

Horregatik, SPKLren 167.f) artikuluaren baitan, kontratu honen esleipena prozedura negoziatuaren bidez egingo da, Lege horren 166. artikulutik 171. artikulura ezarritakoaren arabera, eta presazko izapidetzea jarraituz, SPKLren 119. artikuluari jarraiki. Izan ere, kontratua egitea atzeraezineko beharrizana da eta, gainera, interes publikoko arrazoiek esleipena azkartzea eskatzen dute.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, karatularen 12. atalean zehaztutako alderdiak negoziatuko dira, eta karatularen 13. atalean zehaztutako esleipen irizpideak hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Esleipenduna suertatzen den lizitatzaileak egindako eskaintza, bere osotasunean, kontratuaren edukira sartuko da, eta agiri honekiko hobekuntza suposatzen duen guztia, nahitaez bete beharrekoa izango da.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, arestian aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

2.- Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko kasuan kasu eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan,

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez da onartuko hark sinatutako proposamenik.

5.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, negoziazio fasean gerta litezkeen ondorioak gorabehera, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak. Halaber, proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio mahaiari eta, hala badagokio, kontratazio organoari, baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuan Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroko datuak kontsultatzeko.

6.- Lizitatzaileak konfidentzial izenda dezake eskaintza egitean berak emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn esleipenaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango du bere sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez.

7.- KAUDIMENA:

Lizitatzaileek karatularen 11. atalean zehazten diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionaleko baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa egiaztatu beharko ditu, baldintza agiri honen 12.2 klausulan ezartzen den unean eta moduan.

Horrez gain, nahitaez kontratuari atxikitu beharko dira karatularen 11. atalean zehaztutako gutxieneko giza baliabideak, bertan zehaztutako baldintzak bete beharko dituztenak. Helburu horrekin, lizitatzaileek zerbitzua emateko kontratura atxikitzen dituen giza baliabideen adierazpena egin beharko dute, agiri honen **I. Eranskinean** jasotako ereduari jarraiki.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak alderdi horiek egiaztatuko ditu, baldintza agiri honen 12.2 klausulan xedatutakoarekin bat.

11. ESKAINTZAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe Plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, Kontratatzailearen Profilean argitaratzen denetik, eta proposamenak

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke profilaren bidez.

Epea: lizitatzaileek beraien eskaintzak **gonbidapen idatzia jaso eta hurrengo egunetik** kontatzen hasita **HAMAR (10) EGUN NATURALEKO epean aurkeztu beharko dituzte.**

2.- Proposamenak www.contratación.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza agiri honetako **III. Eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo elektroniko bakarrean jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira. Horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

11. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten den **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARREAN aurkeztuko dituzte** lizitatzaileek edo lizitatzaileen ordezkari diharduten pertsonek.

2.- Artxibo elektronikoetan, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

3.- **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRAK "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZU KONTRATURAKO ESKAINTZA**" titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Ardurapeko adierazpena, Kontrataziorako Agiri Europar Bakarra (DEUC) ereduaren arabera.**

  DEUCen galdetegi normalizatua elektronikoki betetzeko eskuragarri dago honako web helbide honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

  Era berean, lizitatzaileek DEUC dokumentua bete ahal izateko, Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean erabilgarri dago XML formatua inportatzeko.

  Lizitatzaileek IV. ataleko II, III zatiak, α atala, eta VI. atala bakarrik bete behar dituzte. Ondorio horietarako, Estatuko Ondare Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasotako orientabideak jarraitu behar dituzte, haren bidez argitaratu baita Kontratazio publikorako Zuzentarau berrian (2016ko apirilaren 8ko EAOn argitaratua) aurreikusitako Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruzko Kontratazio Administratiboaren Kontsultarako Batzordearen Gomendioa.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Lizitatzaileek ez dute beren azpikontratista izan daitezkeenak baztertzeko arrazoiei buruzko informazioa emateko obligaziorik.

Enpresa lizitatzaileak eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du esleipendun gisa proposatuz gero edo horretarako eskaera eginez gero (prozeduraren edozein unetan haren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean).

** Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen badu, SPKLren 75. artikuluaren arabera, enpresa horietako bakoitzak ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta, bertan, kasu horietarako informazio egokia jaso beharko du, Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.*

*** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak ardurapeko adierazpena aurkeztuko du, kasu horietarako Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren formularioan eskatutako informazioa jasoko duena.*

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxieneko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

**** Atzerriko enpresek, SPKLren 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

Ardurapeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, ardurapeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

- **<u>Ardurapeko adierazpena, kontratua betetzeko giza baliabideak adskribatzeko konpromisoari dagokiona, agiri honen I. Eranskinean jasotako ereduaren arabera</u>**, agiriaren 10.7 klausularekin bat eta karatularen 11. atalean adierazitakoarekin adostasunean.

- **<u>Memoria teknikoa</u>**, karatularen 13.2 atalean zehaztutakoaren arabera.

  Memoria teknikoak DIN A4 formatuko 75 orri hartuko ditu gehienez. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzen duten azalak eta aurkibideak. "Times New Roman" motako letra erabili beharko da, 12 neurrikoa.

  Agiri honetan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо. Gehieneko luzera gaindituz gero, edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

  Balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan, enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea. Hala, lizitazioan jarraitzeko beharrezkoa izango da gutxienez 22,5 puntu lortzea irizpide hauen balorazioan.

- **<u>Proposamen ekonomikoa, eskarmentua eta formakuntza gehigarria</u>**, baldintza agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta eta dagozkien egiaztagiriekin.

  **Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere*.

  *** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamenik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

  **** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

12. KONTRATAZIO MAHAIA, PROPOSAMENEN AZTERKETA, NEGOZIAZIOA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

2.- Proposamenak aurkezteko epea igarota, SPKLren 169. eta 170. artikuluetan ezarritakoa jarraituz, honako jardun hauek egingo dira, Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe Plaza 1), une oro negoziazioen gardentasuna eta publizitatea eta parte hartzen duten lizitatzaileen arteko diskriminazio eza bermatuz:

a) Aldez aurretiko eskakizunak betetzearen azterketa

Kontratazio mahaiak, lehenik, artxibo elektroniko bakarretan jasotzen den eta aldez aurretiko eskakizunak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioa aztertu eta kalifikatuko du, eta behin izaera eta kaudimena egiaztatuta, negoziazio fasera pasako diren hautagaiak zehaztuko ditu.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, lizitatzaileari jakinaraziko dio, eta 3 egun naturaleko epea emango dio akats horiek zuzentzeko.

Ezarritako eskakizunak betetzen dituzten hautagaien kopurua hiru baino txikiagoa bada, kontratazio organoak prozedurarekin jarraitu ahal izango du eskatutako baldintzak betetzen dituztenekin, eta ezingo dira gonbidatu prozeduran parte hartzeko eskaera egin ez duten enpresaburuak edo baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagaiak.

b) Onartutako eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileekin negoziazioa

Jarraian, onartutako eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileekin negoziatuko dira baldintza agiri honen karatularen 12. atalean adierazitako alderdiak, eskaintza horiek hobetzeko helburuarekin, eta honako prozedura hau jarraituz:

1. Kontratazio organoak, hala badagokio, haien mendeko zerbitzu teknikoen bitartez, negoziatzera gonbidatuko ditu onartutako eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileak, negoziatu beharreko alderdiak zehaztuz, baldintza agiri honen karatularen 12. atalaren baitan, eta jakinaraziz zein ezaugarri eta onura dituzten beren eskaintzek eta onartutako gainerakoek, baina eskaintza bakoitza nork egin duen identifikatu gabe. Negoziatzeko gonbidapen horiek lizitatzaileek adierazitako helbide elektronikora igorriko dira.

2. Lizitatzaileek 3 egun balioduneko epean erantzun beharko dute, beren hasierako eskaintza hobetuz edo bere horretan mantenduz. Erantzuna kontratazio organoari bidali behar diote gutun-azal elektroniko baten bidez.

   Eskaintza berrietan zehazki adierazi beharko da zein hobekuntza eskaintzen diren, eta ez da onartuko eskaintza generikorik gainerako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza onuragarrienaren baldintzak hobetzeari buruz.

3. Eskaintza berriak ikusita, negoziazio txanda gehiagotara dei egin daiteke, elektronikoki zein aurrez aurre, hobekuntza gehiago lortze aldera. Negoziazio txanda bakoitzaren aurretik, aurreko txandan lortutako emaitzen berri emango zaie lizitatzaile guztiei, betiere lizitatzaile bakoitzak egindako eskaintza zein den adierazi gabe.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

4. Kontratazio organoak, hala badagokio, haien mendeko zerbitzu teknikoen bitartez, negoziazioak amaitzea erabakitzen duenean, akta bat egingo du egindako jarduketak azalduz, eta txosten bat, lortutako emaitzak zehaztuz. Horrez gain, lizitatzaile guztiei informatuko die, eta eskaintza berriak edo berrikusiak -behin betikoak- aurkezteko 3 egun balioduneko epea ezarriko du.

Negoziazioak egin bitartean, idatziz jakinaraziko zaie baztertuak izan ez diren eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaile guztiei gutxieneko eskakizunak ezartzen ez dituzten kontratazioaren zehaztapen teknikoetan edo bestelako dokumentazioan ematen den edozein aldaketa, eta 3 egun balioduneko epea emango zaie beste eskaintza berrikusi bat aurkez dezaten.

Inola ere ez dira negoziatuko kontratuaren xede den prestazioaren gutxieneko eskakizunak, ezta esleipen irizpideak ere.

Une oro zainduko da lizitatzaile guztiek tratu bera jasotzea. Bereziki, ez da bereizkeriaz emango lizitatzaile batzuei besteen aldean abantaila eman diezaiekeen informaziorik.

Halaber, gainerako lizitatzaileei ez zaizkie emango hautagairen edo lizitatzaileren batek komunikatu dituen datu konfidentzialak, berak aldez aurreko baimena eman gabe.

Negoziazioen izaera, konplexutasunaren edo zabaleraren arabera, negoziazioa posta elektronikoaren bidez edo elkarrizketen bidez egiteko aukera egongo da (agertze bidez, bideokonferentzia bidez edo telefonoz). Nolanahi ere, negoziazio guztiak idatziz jasoko dira espedientean (bi alderdiek sinatutako akten bidez edo, hala badagokio, mezu elektronikoen bidez), bai negoziazioari dagokionez, baita negoziazioan parte hartu duten akordioei dagokienez ere. Negoziazioak grabazio bidez erregistratuko badira, enpresa lizitatzaileen onarpena beharko da.

c) Behin betiko eskaintzak aurkeztea eta balioestea

Behin betiko eskaintzak jasotakoan, kontratazio mahaiak egiaztatuko du ezarritako gutxieneko eskakizunekin bat datozela, eta baldintza agirietan jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela. Gero, onartutako eskaintzak ebaluatuko ditu, karatularen 13. atalean ezarritako esleipen irizpideen baitan -lehenengo balio judizio bidez baloragarriak diren irizpideak eta ondoren irizpide automatikoak aplikatuz-, sailkatu egingo ditu, eta kontratazio organoari dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio, puntuaziorik onena lortzen duen enpresaren alde.

Esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; honek ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

d) Esleipen proposamena eta errekerimendua

Eskaintzak ebaluatu eta sailkatutakoan, kontratazio mahaiak kontratazio organoari aurkeztuko dio dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

antolatuak agertuko dira eskaintzak, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza bereizita.

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, 5 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, kontratatzeko daukan enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa.

f) Kontratua betetzeko giza baliabideen adskripzioaren inguruan eskaintza egiterakoan hartu duen konpromisoaren baitan, horiek badituela egiaztatzeko dokumentuak.

g) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena.

h) Kontuan izanda lizitazio honek Europar Batasunaren NextGenerationEU finantzaketa jasoko duela, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
   a. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA), esleitzeko proposatua izan den enpresak eta azpikontratistetako bakoitzak betea eta sinatua, baldintza agiri honen **IV. Eranskineko** ereduaren arabera.
   b. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren zeharkako printzipioak

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

betetzeko konpromisoaren ardurapeko adierazpena, esleitzeko proposatua izan den enpresak eta azpikontratistetako bakoitzak betea eta sinatua, baldintza agiri honen **V. Eranskineko** ereduaren arabera.

c. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko (DNSH printzipioa) ardurapeko adierazpena, esleitzeko proposatua izan den enpresak eta azpikontratistetako bakoitzak betea eta sinatua, baldintza agiri honen **VI. Eranskineko** ereduaren arabera.
d. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez, datuak lagatzearen eta tratatzearen inguruko ardurapeko adierazpena, esleitzeko proposatua izan den enpresak eta azpikontratistetako bakoitzak betea eta sinatua, baldintza agiri honen **VII. Eranskineko** ereduaren arabera.
e. Funtsen azken hartzailearen identifikazioari buruzko ardurapeko adierazpena, baldintza agiri honen **VIII. Eranskineko** ereduaren arabera, azpikontratistak guztiak identifikatuta eta funtsen azken onuradunaren edo onuradunen titularrari buruzko informazioarekin.
f. Oiartzungo Udalaren iruzurraren aurkako neurrien planari atxikitzearen inguruko ardurapeko adierazpena, esleitzeko proposatua izan den enpresak eta azpikontratistetako bakoitzak betea eta sinatua, baldintza agiri honen **IX. Eranskineko** ereduaren arabera.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita egongo da bertan jasotakoaren arabera, eta aurkakorik frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriarekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa (BEZ gabe) exijituko zaio zehapen modura, eta dokumentazio

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

** Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.*

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du.

13. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

1.- **Esleipena**

Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztuta, kontratazio organoak kontratua esleituko du. SPKLren 150.3 artikuluaren baitan, esleipenak kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta finkatuko ditu.

Esleipenak arrazoitua izan behar du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLaren 153.3. artikuluaren arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

Kontratua aldi baterako enpresen elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABEE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.

2.- **Formalizazioa**

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz mehatz egokituko den dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta izangaiei bidali eta 10 egun naturaleko epea igaro ondoren. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioa etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, kontratua formalizatu dezan. Era berean jokatuko da errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak etendura kentzen duenean.

Kontratua, formalizatu ondoren, Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

III. KONTRATUA GAUZATZEA

14. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratazio organoak, SPKLren 62. artikuluak xedatutakoaren arabera, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera finkatuta dagoen epearen barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren epe partzialetan ere. Horrela, bada, baldintza agirietan ezarritako denboran eta lekuan eman beharko du zerbitzua, baldintza agiri honekin eta Baldintza Teknikoen Agiriarekin bat etorriz. Dena dela, Udalak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera dezake.

Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko.

Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo dagozkion zehapenak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

3.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, SPKLen 197. artikuluaren arabera.

4.- Kontratua gauzatzerakoan, kontratuan ezarritako klausulak eta agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero, eta kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko eman dizkion jarraibideen arabera. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

5.- Kontratista egindako lanen eta prestazioen eta emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da. Era berean, kontratuaren exekuzioan gertatutako ez egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo amaiera okerrek Udalari edo hirugarren batzuei ekar diezazkiekeen ondorioen erantzule izango da.

6.- Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela uste badu, kontratua betetzearen ordena ona edo behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

7.- Halaber, kontratistak zerbitzua hitzartutako jarraikortasunez eskaintzeko betebeharra izango du, eta partikularrei bermatu beharko die zerbitzua erabiltzeko eskubidea xedatutako baldintzen arabera. Era berean, zerbitzua ondo dabilela zaindu beharko du, eta zerbitzuaren funtzionamenduak eskatzen dituen eragiketek hirugarrenei eragiten dizkieten kalteak ordaindu beharko ditu, salbu eta Administrazioari egotz dakizkiokeen kausek eragin badute kaltea.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

15. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202. artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bezala ezartzen dira honakoak:

Klausula honetan jasotzen diren baldintzak kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz SPKLren 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zehapenak ezartzea edo kontratua suntsitzea eragin dezake, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

15.1 BETE BEHARREKO GUTXIENEKO LAN BALDINTZAK

1.- Kontratista behartua dago betetzera lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, Hitzarmen Kolektiboenak eta laneko segurtasun, osasun eta higienekoak, baita lan arriskuen prebentzioari dagozkionak ere, kontratu honetako zerbitzua emateko erabiltzen dituen langileei dagokienean, eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango horiek betetzen ez baditu.

2.- Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

3.- Enpresa kontratistak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zeuden lan baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan.

4.- Enpresa kontratista behartuta egongo da kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzen inguruko informazioa ematera, baldin eta eskatzen bazaio.

5.- Kontratura atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoak ez direnak, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari.

6.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa kontratistaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

7.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Enpresa kontratistak egiaztatu beharko du enpresa horiek ere lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen dituztela.

Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

15.2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOZKIONAK

1.- Enpresa kontratistak, kontratua egikaritzean, ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dietenak ere kontratua egikaritzera atxikitako langileei, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoan, xedatutakoari jarraikiz.

Enpresa kontratistak sexuaren arabera bereizitako informazioa sortu eta erabili beharko du erregistro, inskripzio, datu-base eta zerbitzua ematean sortutako memoria guztietan, eta sexuaren arabera bereizitako datu guztiak bildu eta genero-adierazleak erabili beharko ditu dagozkion memoriatan.

2.- Enpresa kontratistak genero ikuspegia aintzat hartuko du kontratua egikaritzean eta hizkera ez sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Enpresa kontratistak bermatuko du sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpena ekiditeko neurriak hartzen direla.

4.- Gainera, enpresa kontratistak begirunez parte hartuko duela bermatu beharko du prozesuko jarduera guztietan, jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala eta aniztasun sexuala kontuan hartuta. Beraz, jarduerak eta hizkuntza modu integratzailean egokitu beharko dira, aukera berdintasuna eta baldintza berberak lortzeko. Ez dira erabiliko ez hizkuntza ez irudi estereotipatuak, arrazistak, xenofoboak eta diskriminatzaileak, ez prozesuan, ez materialetan eta gainerako euskarrietan.

15.3 BETE BEHARREKO GUTXIENEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

2.- Enpresa kontratistak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

3.- Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; beraz, erabiltzaileekiko harremana euskara izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da. Enpresa kontratistaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea. Halere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

4.- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, zerbitzura emango duten pertsonek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan ezarritakoa betez.

Zehazki, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, zerbitzua emango duten pertsonek Euskarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (3. Hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea) daukatela egiaztatu beharko du enpresak kontratua esleitu aurretik, eta gerora pertsona berririk sartuko balitz, horien hizkuntza-gaitasuna ere egiaztatu beharko da.

5.- Errotuluak, kartelak eta eraikineko hizkuntza paisaia orokorreko gainerako elementuak euskaraz egongo dira. Salbuespen gisa, derrigorrezkoa denean soilik izango dira elebietan, Udalak une horretan indarrean duen barne erabilera planean zehaztutakoari jarraiki. Lanerako tresnak (informatikoak, teknikoak…) euskaraz ezarriko dira, merkatuak aukera bermatzen duen neurrian.

6.- Kontratuaren arduradunak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

15.4 EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FINANTZAKETAREN BAITAN BETE BEHARREKOAK

Kontratu honen xedea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan finantzatzen denez gero, kontratistak, bere buruari eta, hala badagokio, azpikontratistei dagokienez, Europako finantzazioaren arloan – NextGenerationEU indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu.

Zehazki, eta besteen artean, honako betebeharrak izango dituzte:

1.- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren helburuak betetze aldera, 22. Osagaian ezarritakoa betetzea. Bereziki, C22.I2 lerroan jasotako mugarriak eta helburuak betetzea, Espainiako Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren (CID) eta erantsitako dokumentuaren eta Europako Batzordearen eta Espainiaren arteko Araubide Operatiboaren baitan, baldintza agiri honen 4. klausulan zehaztutakoarekin bat.

Horiek betetzeko eta Europar Batasunaren NextGenerationEU finantzaketa jasotzeko, baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian lizitazioa gauzatzeko eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko zehaztutako epeak bete behar dira. Halaber, kontratistak kontratuaren xede diren jarduerak gauzatzearen jarraipena egiteko ardura izango du, uneoro jarduera bakoitzaren eta ezarritako mugarri eta helburuen betetze maila ezagutu ahal izateko.

Gainera, mugarri eta helburu horiek betetzen direla egiaztatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskatutako epean eta moduan.

2.- Etiketatze digitalari nahiz horren kontrolerako ezarritako mekanismoei dagozkien kontratu izaerako dokumentuetatik eratorritako betebeharrak betetzea, baldintza agiri honen 4. klausulan ezarritakoarekin bat.

Gainera, betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskatutako epean eta moduan

3.- Kontratatutako jarduerak gauzatzean ingurumenari kalte esanguratsurik eragiten ez zaiola zaintzea, inbertsio iraunkorrak errazteko esparrua ezartzen duen eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren arabera.

Halaber, ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH printzipioa) aplikatzeak bere gain hartutako betebeharrak errespetatzea, eta printzipioa errespetatzea eta betetzea jarduera guztietan, bai kontratazio prozeduran eta baita exekuzioan ere. Zehazki, kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa aplikatzeari buruzko Gida Teknikoaren Batzordearen Jakinarazpenean (2021/C 58/01), zein Espainiako Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (CID) eta erantsitako dokumentuan ezarritakoak.

Horrek barne biltzen du 22. Osagaian ezarritako baldintza espezifikoak betetzea, baita 2. inbertsioan ere, zeinetan jarduera horiek sartzen diren DNSH printzipioari dagokionez, eta bereziki Planaren 22. Osagaiaren dokumentuaren 3. eta 8. ataletan eta CIDaren eranskinean jasotakoak.

Betebehar horiek bete direla egiaztatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskatutako epean eta moduan.

4.- Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua eta hura garatzeko HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 Aginduak oinarri hartuta, Oiartzungo Udalak, Europar Batasunaren Next Generation funtsen onuradun gisa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako politika, iruzurraren aurkako neurrien plana eta haren eranskinak onetsi zituen 2022ko

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

martxoaren 30eko Osoko Bilkurako Batzarrean (2022ID120002 espedientea). Era berean, Oiartzungo Udalak iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala egin zuen.

Aipatutako plana aplikatuko da eta bertan jasotakoa bete beharko da.

Horrenbestez, enpresa kontratistak eta azpikontratistek ezingo dute interes gatazkarik izan. Horrekin lotuta, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) sinatu behar dute, baldintza agiri honen **IV. Eranskineko** ereduaren arabera, eta 12.2 klausulan jasotakoaren baitan aurkeztu.

Halaber, nahiz eta enpresa esleipendunak kontratua sinatu baino lehen azpikontratistak identifikatu behar dituen, eta beren IGEAk sinatuta aurkeztu, beti ere lanak gauzatzen hasi aurretik, kontratua gauzatzen den bitartean azpikontratisten zerrendan aldaketaren bat gertatzen bada, berehala jakinarazi beharko dio Udalari, erregistro bidez, enpresa horren IGEArekin batera, azpikontratista berriak sartzen badira.

Alde horretatik, faktura bakoitzarekin batera erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da, azpikontratisten zerrendak aldaketarik ez duela izan adieraziz, edo aldaketaren bat egon bada, enpresa kontratistak azken azpikontratista guztiak identifikatu beharko ditu, horien guztien IGEA beterik eta sinatuta aurkeztuz. Baldintza horiek bete ezean, atxiki egingo da fakturaren ordainketa.

Edozein kasutan, interes gatazkarik suertatuz gero, berehala jakinaraziko zaio kontratazio organoari.

5.- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzearen inguruko 2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluaren arabera, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren datu-baseetan lizitatzaileari buruzko benetako daturik ez badago, kontratazio organoari informazio hori ematea, hark informazio eskaera egiten duenetik 5 egun balioduneko epean. Erreklamatutako lizitatzaileak adierazitako epean informazio hori ematen ez badu, lizitazio prozeduratik kanpo geratuko da.

6.- Aurrez xedatutakoari kalterik gabe, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen 2020ko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2. artikuluan aurreikusitako informazio arloko betebeharrak errespetatzea, baita Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Borrokaren Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolei lotutakoak ere, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea, bereziki iruzurra, faboritismoa, ustelkeria eta finantzaketa bikoitza saihesteko.

Era berean, azpiko gastuaren erregulartasuna ziurtatzea eta iruzurra eta ustelkeria saihesteko, detektatzeko, jakinarazteko eta zuzentzeko, eta interes gatazka eta finantzaketa bikoitza saihesteko neurriak hartzea.

7.- Dokumentazioa mantentzeko betebeharra errespetatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren, Europar

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoaren, 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren informazio, komunikazio eta publizitate arloko araudia betetzea. Zehazki, komunikazioari, goiburuei eta logoei dagozkien konpromezuak bete behar dira kontratuaren esparruan gauzatutako komunikazio jarduera guztietan (dokumentu guztietan, komunikabideekin harremanetan, konferentzietan, informazioa emateko materialean, aurkezpenetan, karteletan, sare sozialetan zabaldutako informazioan etab.), finantzazioaren jatorria zehaztuz (Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU), euskaraz eta gaztelaniaz, eta dagozkion logoak txertatuz. Hori guztia, besteak beste, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 34. artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen 2020ko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan xedatutakoaren baitan, baita Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilentzia Planaren Markaren Eskuliburuan agertzen diren baldintzen arabera ere.

9.- Kontratuaren esparruan egindako jarduerei buruzko auditoretza-pista egokia mantentzea, eta euskarri-dokumentazioa mantentzea.

Auditoretza-pistari dagokionez, inbertsio bakoitzaren eta funtsen azken jasotzaile bakoitzaren trazabilitatea gorde behar da, baita helburuen betetzea eta adierazleen neurketa kalkulatzea eta jarraitzea ahalbidetuko duen sistema bat eduki ere, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.d) artikuluarekin bat etorriz.

Horrekin lotuta, eta Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen 2020ko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluarekin adostasunean, beharrezkoa da kontratistaren eta azpikontratista guztien benetako titularraren izena eta jaiotegunaren inguruko informazioa ematea.

10.- Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan jasotako kontrol- eta auditoretza-neurriak onartzea, eta Europako instituzioen kontrol jarduerak onartzea, Erregelamendu horren 22.e) artikuluan xedatutakoarekin bat.

11.- Halaber, emandako prestazioak, egindako lanak, lortutako emaitzak eta inpaktuak ebaluatzeko neurriak betetzea, eta horietan parte hartzea.

12.- Berreskuratzeko eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzazioaren ondorioz aplikagarria izan daitekeen beste Europar Batasuneko edo estatuko edozein betebehar ere errespetatzea eta betetzea.

Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako,

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

16. NORBERAREN DATUAK

Enpresa kontratistak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Baldin eta enpresa kontratistak edo subkontratistak, kontratua dela eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, SPKLren 25. xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, kontratuareren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:
   a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa kontratistak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa kontratistak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.
   b) Kontratistak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.
   c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, kontratistak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa kontratisaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

17. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Indarrean dagoen legeriak informazio publikoa eskuratzeari buruz esaten duena errespetatuz eta SPKLk esleipenaren publizitateari buruz eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena kaltetu gabe, Oiartzungo Udalak ezin izango du beren eskaintza aurkezteko unean, sekretu tekniko edo komertzialak direla arrazoituz, enpresariek konfidentzialtzat ematen duten informazioa zabaldu, ezta eskaintzen alderdi konfidentzialak edo eta lehiaketa-prozedura honetan edo beste batzuetan konpetentzia faltsutzeko erabil daitekeen ezein informazio ere.

Oiartzungo Udalaren konfidentzialtasun betebeharra berriz, ezin izango da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ez eta lizitazio prozesuan zehar zuzenean edo zeharka sortzen den informe nahiz dokumentazio osora zabaldu ere. Zabalkunde mugatua duten dokumentuei bakarrik eragingo die, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuei.

Konfidentzialtasun betebeharrak ez dio konfidentzialak ez diren burututako kontratuen zatien zabaltzeari eragingo, besteak beste, likidazioa edo kontratatu diren enpresak eta azpikontratatutakoak, bere kasuan, eta kasu guztietan eskaintzaren alderdi esentzialak eta ondoren egiten diren kontratuaren aldaketak, beti ere Datu Pertsonalen Babesari buruzko legeria errespetatuz, aurreko klausulan adierazten den moduan.

Baldintza agirian edo kontratuan konfidentzialtzat eman den informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat hartu behar dena, eta kontratistak kontratuaren exekuzioaren ondorioz ezagutzen duena, errespetatu egin beharko du. Betebehar honek informazioa ezagutu eta 25 urtez iraungo du.

18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da kontratu eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

19. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharrezko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLen 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLen 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

Dena den, kontratuaren xede diren prestazioak Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan gauzatuko direnez (NextGenerationEU), kontratua aldatzeko arrazoia izango da agintaritza eskudunaren honako aginduren bat: bete beharreko mugarriei eta helburuei, horiek betetzeko epeei eta kontrol mekanismoei buruzko neurri zuzentzaileak hartzea; etiketatze berdearen eta etiketatze digitalaren arloko betebeharrak betetzeari eta horiek kontrolatzeko mekanismoei buruzko neurri zuzentzaileak hartzea, eta kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa aplikatzeak dakartzan betebeharrak betetzeari eta kontrol mekanismoei buruzko neurri zuzentzaileak hartzea.

20. KONTRATISTAREN ONDORENGOA IZATEA

1.- Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin. Kasu horietan ondorengoak bere gain hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira.

2.- Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko kaudimen baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua.

21. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, SPKLren 214. artikuluan jasotako ondorengo mugekin eta baldintzekin:

a) Kontratazio organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.
b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.
c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

d) Kontratistaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

22. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat gauzatzea, aurretik Udalak espresuki baimenduta, eta SPKLren 215, 216 eta 217. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

2.- Gorago aipatu moduan, kontratua sinatu aurretik eta ondoren, aldaketarik egonez gero, kontratistak azpikontratistak identifikatu behar ditu, eta gutxienez datu hauek adieraziko ditu:

a) IFZ.
b) Enpresaren izena.
c) Helbide fiskala.
d) Funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa (azken buruan bezeroaren edo transakzio edo jarduera bat egiteko erabiltzen den pertsona fisikoaren edo pertsona fisikoen jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak).

Datu horiek NextGenerationUE dirulaguntzarekin zerikusia duten administrazio publikoen artean lagako dira, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoaren arabera, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Era berean, azpikontratisten IGEAk sinatuta aurkeztuko ditu, baldintza agiri honen **IV. Eranskineko** ereduaren arabera, 15.4 klausulan xedatutako moduan.

23. BERME EPEA

1.- Kontratua gauzatutzat hartuko da esleipendunak kontratuaren xede den prestazioa erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.

2.- Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabete pasa baino lehen, kontratuaren onarpen egintza formala eta positiboa egingo da.

Administrazioak erabakiko du kontratistak egindako prestazioa bat datorren prestazioa gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta horiek jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen edo hutsegiteen ondorioz, administrazioak uko egin ahal izango dio prestazioari, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo, bere kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

3.- Halaber, URTEBETEKO berme epea egongo da, onarpen egintza formala eta positiboaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLren eta HAKLEOean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Berme epean egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak edo hutsegiteak daudela, kontratazio organoak kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

4.- Berme epea igarota Udalak eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratistak ez du erantzukizunik izango egindako prestazioagatik eta behin betiko bermea itzuliko zaio.

24. ZEHAPENAK

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera gauzatzeko ezarrita dagoen epearen barruan, baita, kasua balitz, ezarritako epe partzialetan ere.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartaraztea.

1.- **Kontratua burutzeko epeak ez betetzea**

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzerakoan berandutzan erortzen baldin bada, Udalak kontratua suntsitzeko erabakia hartu ahal izango du, kasu horretan kontratistak bermea galduko duelarik, edo kontratatzaileari eguneko zehapenak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,60 euro eguneko kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zehapena kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) % 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsitzeko eskumena izango du, edo kontratuaren jarraipena adosteko zehapen berriak ezarrita.

2.- **Prestazioen burutzapen partzialari buruz edo prestazioak akatsez betetzeari buruz**

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu edo prestazioak akatsez betetzen baditu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua suntsitzea, kasu horretan kontratistak bermea galduko duelarik, edo exekuzioarekin jarraitzea, kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) % 10eko zehapena ezarrita.

3.- **Exekuzioko baldintza bereziak betetzen ez baditu**

Oso larritzat joko da exekuzio baldintza bereziak ez betetzea, kontratuaren nahitaezko betebehartzat jotzen baitira, eta kontratua suntsitzeko arrazoitzat hartuko da, jarduera hori isolatua eta bideratzeko modukoa den kasuetan eta kontratua suntsitzea herri intereserako gomendagarritzat jotzen ez den kasuetan izan ezik. Kasu horietan, dagokion zehapena ezarriko da.

Arau orokor gisa, zehapena kontratuaren kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) % 1ekoa izango da, beti ere, kontratazio organoak, behar bezala arrazoituta, hutsegitea larria edo oso larria dela uste ez badu. Azken kasu horretan zehapenak, hurrenez hurren, % 5ekoak, edo legez gehienera jar daitekeen % 10ekoak izan daitezke. Hutsegitea behin eta berriz gertatzen bada, hori kontuan hartu ahal izango da hutsegitearen larritasuna baloratzeko.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Kontratistak exekuzioko baldintza bereziak bete dituen egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratua egiten ari den edozein unetan.

4.- **Kontratuaren berme epean betebeharrak ez betetzeari buruz**

Enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu betetzen egindako lanetan dauden akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko betebeharra berme epean, Administrazioak era subsidiarioan egin ahal izango ditu zuzenketak kontratistaren kontura, eta eguneko zehapenak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: euro 1 eguneko kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 1.000 euroko.

Edozein kasutan, zehapenen bidez ez badira estaltzen Administrazioari eragindako kalteak, Administrazioak sortutako kalte-galeren ordaina eskatuko dio kontratistari.

Halaber, zehapenak bi modutara ordain daitezke: kontratistari egin behar zaion ordainketa osoan edo partzialetan zenbatekoak kenduta, edo bermetik kenduta; hori guztia SPKLren 192. artikuluaren eta hurrengoen arabera.

25. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

1.- Kontratuaren epea bukatzen denean edo suntsitzean iraungiko da kontratua.

2.- Epea bete delako kontratua iraungi dela ulertuko da, zehaztutako epea igaro denean.

3.- Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agiriak ezarritakoak, SPKLren 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege beraren 312.g) eta 313. artikuluetan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Horrez gain, kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), SPKLn ezartzen den arabera.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako kontratua gauzatzeko nahitaezko betebeharren bat ez betetzea edo baldintza bereziak ez betetzea.

26. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta horren ondorioak zehaztea. Eskumen horiek SPKLren eta HAKLEOean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei jarraituz erabiliko dira.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

27. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza Agiri honen arabera egingo den kontratua zerbitzu kontratua da, SPKLren 17. artikuluak xedatutakoaren arabera. Administrazio izaera izango du, eta Administrazio Publikoen kontrataziorako dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta betiere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako Agiri Teknikoak, baita lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza ere.
- Lizitazioa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.
  Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Sektore Publikoko Kontratuen azaroak 8ko 9/2017 Legea (SPKL); eta arauzko xedapen gisa 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betetzeak edo iraungitzeak eragin ditzaketen auziak ebazteko, eta auzi horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Era berean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitako kontratua den heinean, honako legediak eta dokumentuek ere arautuko dute:

- COVID-19aren krisiaren ondorengo errekuperazioa laguntzeko Europar Batasuneko Berreskuratze Tresna ezartzen duen Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamendua.
- Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, eta hori garatzen duten gainerako arauak.
- Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua.
- 2020ko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

- 2020ko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarri eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzearen jarraipena egiteko.
- 2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 2021eko urriaren 19ko Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako hitzarmena argitaratzen duena.
- 2022ko urriaren 26ko Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde banaketa onartzeari buruzko Akordioa argitaratzen duena, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 22. Osagaiaren –"Zaintza ekonomia eta berdintasun eta gizarteratze politikak indartzea"- esparruko inbertsio proiektuak finantzatzeko kredituak Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren mende jartzeko.
- Diputatuen Kontseiluaren 2023ko irailaren 12ko erabakia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan gizarte berrikuntzako proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, espezifikoak eta 2023ko deialdia onartzen dituena (Gipuzkoako Foru Aldundia, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua).
- 2023ko abenduaren 29ko 773/2023 Foru Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan gizarte berrikuntzako proiektuetarako dirulaguntzen 2023ko deialdia ebazten duena (Gipuzkoako Foru Aldundia, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua).

Horrez gain, aplikagarriak diren gaiari buruzko Europar Batasunaren gainerako arauak eta horiek garatzeko edo horien transposizioa egiteko estatu arauak.

4.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, agiri honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

5.- Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria euskaraz idatziak izan dira eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa gainetik egongo da.

28. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- SPKLren 44. artikuluan arautzen den **Kontratazio alorreko errekurtso berezia** aplikagarri izango zaie, aukerako izaeraz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, honakoei:

a) Lizitazio-iragarkiei, kontratazio hau arautzen duten dokumentuei eta baldintza agiriei.
b) Prozedura honetako izapidetze egintzei, betiere horiek zuzenean edo zeharka esleipenean erabakitzen badute, prozedura jarraitu ezina eragiten badute edo eskubide edo interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute.
c) Esleipen erabakiei.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedaturikoa ez betetzean oinarrituriko kontratu aldaketei, aldaketaren ondorioz esleipen berria egin behar zela ulertzeagatik

2.- Errekurtso hori, 10 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, lizitazio iragarkia edo errekurritutako egintza kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

Aurrekoa gorabehera:
- Esleipen prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka edo publizitaterik gabeko prozedura aplikatzearen ondoriozko egintza baten aurka jartzen denean, balizko arau-haustearen berri izan den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.
- Kontratuaren esleipenaren aurka jartzen denean, SPKLren 15. Xedapen Gehigarriaren arabera jakinarazten den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen epea.

3.- Errekurtsoa jartzeko idatzia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4 artikuluak jasotako lekuetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, kontratazio organoaren erregistroan edo Euskal Autonomi Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarenean aurkeztu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan berariaz adierazitakoak ez beste erregistroetan aurkeztutako idatziak berehala eta ahalik eta azkarren jakinarazi behar zaizkio Auzitegiari.

4.- Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa bakarrik jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Interesatuek gainerako tramite-egintzen aurka alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

6.- Klausula honetako lehen atalean jaso gabeko kontratazio honi buruzko gainerako ebazpenei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean arautzen den **administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa** jarri ahal izango zaie, aukerako izaeraz, edo, bestela, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak arautzen duen **administrazioarekiko auzi errekurtsoaren** xede izan ahal dira.

29. KONTRATAZIO PROZEDURAKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLren 140.1.4. artikuluan eta 15. Xedapen Gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak DEUC-en ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

EGINBIDEA: Adierazteko, kontratuaren xede diren prestazioak berrikuntza sozialeko proiektuetako dirulaguntzak emateko programaren esparruan gauzatuko direnez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU, Oiartzungo Udalak 2022ko martxoaren 30eko Osoko Bilkurako Batzarrean onetsitako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako politika eta iruzurraren aurkako neurrien plana betez, Iruzurraren Kontrolerako Organoko kide bakarra izanik, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri honi eta espediente bereko Baldintza Teknikoen Agiriari adostasuna ematen diodala.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

BEÑAT BADIOLA OSTOLAIZ - 44158653X

Digitalki sinatuta norengandik: BEÑAT BADIOLA OSTOLAIZ - 44158653X
Data: 2024.03.27 10:14:43 +01'00'

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

I. ERANSKINA
GIZA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOAREN INGURUKO ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Aipatutako kontratua gauzatzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiriaren karatularen 11. atalean eta Baldintza Teknikoen Agirian zehazten diren **gutxieneko giza baliabide hauek atxikitzeko konpromisoa hartzen dudala:**

- Koordinatzaile teknikoa, astean lau orduz.
- Bi gizarte hezitzaile, lanaldi osoan.

II.- Giza baliabide horiek honako **baldintza hauek beteko dituztela:**

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Soziologiako, Psikologiako edo Pedagogiako unibertsitate gradua izatea
- Euskarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (3. Hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea)

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Teknikoen Agiria bere edukiarekin, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Teknikoen Agirian eta Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa izango dela:..……..(…..Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, honako proposamena ekonomikoa egiten duela: …….euro/urteko.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

a) Prezioa …….. euro.
b) BEZ aplikagarria (…..%): …….euro.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

VII.- Kontratura atxikituko den hezitzaile bakoitzaren eskarmentua esku-hartze komunitarioan honakoa dela:

- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, ……. urteko lan-esperientzia du.
- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, ……. urteko lan-esperientzia du.

VII.- Kontratura atxikituko den hezitzaile bakoitzaren eskarmentua akonpainamendu sozio hezitzaileetan honakoa dela:

- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, ……. urteko lan-esperientzia du.
- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, ……. urteko lan-esperientzia du.

VIII. Kontratura atxikituko diren hezitzaileek honako formazio gehigarria dutela bakardadean eta/edo esku-hartze komunitariotan eta/edo adinekoekin esku-hartzetan eta/edo genero berdintasun arloan:

- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, guztira ……. orduko formakuntza gehigarria du.
- …….. jaun/andreak, NA ..... zenbakia duenak, guztira ……. orduko formakuntza gehigarria du.

Adierazitako eskarmentua eta formakuntza justifikatzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

III. ERANSKINA
LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

   Baldintza administratiboak:

   a) Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
      - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
      - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
      - Nortasun agiri nazional elektronikoa
      - Camerfirma (entitatea, herritarra).

   b) Egoera hauetako batean egotea:
      - Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
      - Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
      - Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

   Baldintza Teknikoak:
   Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
   http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

2. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.
   Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da.
   Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik froga bat egitea.

3. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira eta DEUC-ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektronikora.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

IV. ERANSKINA
INTERES GATAZKARI EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa, eta kontratazio prozedura horretan inpartzialtasuna bermatzeko,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Honako hauen berri dudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61.3 artikuluak (EBren Finantza Erregelamendua) honela dio: "Interes gatazka egongo da pertsona baten eginkizunen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean bere familiarekin, bizitza sentimentalarekin, kidetasun politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo interes pertsonalarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen edozein arrazoiengatik".

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen "Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa" edukia duen 64. artikuluaren helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluak "Abstentzioa" xedatzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla "Administrazioetako agintariak eta langileek, hurrengo atalean aipaturiko egoeretakoren batean daudenean". Abstenitzeko arrazoi dira:

   a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
   b. Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren graduraino odolkidetasunezkoa edo bigarren graduraino ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
   c. Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusezin

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

nabarmena izatea.
d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

II.- Ez nagoela Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes gatazkatzat jo daitekeen edozein egoeratan, eta ez dudala Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio arrazoirik, lizitazio prozedurari eragin diezaiokeenik.

III.- Konpromisoa hartzen dudala kontratazio organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen interes gatazka edo abstentzio arrazoi oro.

IV.- Badakidala interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina ondorioak eta ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

V. ERANSKINA
BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ZEHARKAKO PRINTZIPIOAK BETETZEKO KONPROMISOAREN ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Ordezkatzen dudan enpresak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagozkion estandar zorrotzenak betetzeko konpromisoa hartzen duela, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko eta detektatzeko beharrezko neurriak hartuz, eta, hala badagokio, agintariei atzemandako ez-betetzeen berri emanez.

II.- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren edukia kontuan hartuta, ordezkatzen dudan enpresak konpromisoa hartzen duela ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko ("DNSH" ingelesezko siglengatik, "do no significant harm") Plan horren esparruan egindako jarduketetan.

III.- Ordezkatzen dudan enpresak ez duela finantzaketa bikoitzik eta, bere kasuan, berak dakienez ez dagoela Estatuko laguntzen araubidearekin bateraezina izateko arriskurik.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

VI. ERANSKINA
INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO (DNSH PRINTZIPIOA) ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Aurkeztutako eskaintzak honako baldintzak betetzen dituela:

1. Bertan garatzen diren jarduerek ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumen-helburu hauei, ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren arabera:

   a. Klima-aldaketa arintzea.
   b. Klima-aldaketara egokitzea.
   c. Ur- eta itsas-baliabideen erabilera iraunkorra eta babesa.
   d. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
   e. Atmosferaren, uraren edo lurzoruaren kutsadura saihestea eta kontrolatzea.
   f. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2. Jarduerak, hala badagokio, Osagaiaren neurriari eta azpineurriari ezarritako eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean islatutako ezaugarri eta baldintzetara egokitzen dira.

3. Garatzen diren jarduerek indarrean dagoen ingurumen-araudi aplikagarria beteko dute.

4. Garatzen diren jarduerak ez daude baztertuta planak finantzatzeko, kalte nabarmenik ez eragitearen printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoaren arabera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren (2021/C58/01) baitan, Espainiaren berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Erabaki Proposamenaren eta dagokion eranskinaren baitan.

5. Garatzen diren jarduerek ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primariorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat hartuko dira jarduera amaitu ondoren gauzatzen direnak.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

II.- Aitorpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko direla badakiela eta onartzen duela.

III.- Konfidentzialtasunez tratatuko dituela prozedura honen esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

VII. ERANSKINA
BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ, DATUAK LAGATZEAREN ETA TRATATZEAREN INGURUKO ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Ezagutzen dudala aplikatu beharreko araudia, bereziki Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko honako paragrafo hauek:

1. 2. paragrafoko d) idatz-zatia: "berreskuratze- eta erresilientzia-planaren esparruan inbertsio-erreformak eta -proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez funtsak ikuskatzeko eta kontrolatzeko, honako datu-kategoria harmonizatu hauek biltzea, bilaketak egitea ahalbidetzen duen formatu elektronikoan eta datu-base bakar batean:

   a. Funtsen azken hartzailearen izena;
   b. Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzailea denean, kontratazio publikoaren alorreko Batasuneko Zuzenbidearen edo Zuzenbide nazionalaren arabera;
   c. funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera;
   d. berreskuratze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera, eta mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasunaren beste funts batzuen zenbatekoa adierazita.

2. 3. paragrafoa: "Artikulu honetako 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak bakarrik tratatuko dituzte, 15. artikuluko 2. paragrafoan eta 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako akordioak aplikatzearekin zerikusia duten funtsen erabilerari lotutako kontrol-prozeduren eta aurrekontu-kudeaketaren onespenaren auditoretzaren ondorioetarako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluarekin bat etorriz, Mekanismoak txostenak aurkeztera lotuta egongo da Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatzen den finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

esparruan, eta, bereziki, bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean".

II.- Adierazitako esparru juridikoaren arabera, datuen lagapena eta tratamenduan onartzen dudala, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuekin.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

VIII. ERANSKINA
FUNTSEN AZKEN HARTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOARI BURUZKO ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta "ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA" GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

I.- Hauek izango direla kontratu honen xede diren prestazioak gauzatzeko azpikontratatuko diren enpresak (enpresaren izena, IFZ eta helbide fiskala adieraziz):

Enpresaren izena:

IFZ:

Helbide fiskala:

Datu horiek eman beharko dira subkontratatuko den enpresa bakoitzeko.

II.- Era berean, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.d) artikuluaren eskakizunarekin bat etorriz, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsen azken onuradunaren edo onuradunen benetako titularra edo titularrak honakoak direla:

Pertsonaren izen-abizenak edo enpresaren izena:

NAN/IFZ:

Jaiotze-data (pertsona fisikoa bada):

Datu horiek eman beharko dira azken onuradun bakoitzaren benetako titular bakoitzeko.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217

IX. ERANSKINA
OIARTZUNGO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANARI ATXIKITZEAREN INGURUKO ARDURAPEKO ADIERAZPENA

“..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), eta “ZAINTZADI, ZAINTZA EKOSISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOA SORTZEKO PROIEKTUA” GAUZATZEKO ZERBITZUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXTGENERATION EU, kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

Konpormisoa hartzen dudala Oiartzungo Udalak, Europar Batasunaren Next Generation funtsen onuradun gisa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez, eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua eta hura garatzeko HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 Aginduak oinarri hartuta, 2022ko martxoaren 30eko Osoko Bilkurako Batzarrean onetsi zituen iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako politika eta iruzurraren aurkako neurrien plana aplikatzeko, errespetatzeko eta betetzeko.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura.

Nork Sinatua / Firmado por: AROIA ALTUNA IBARGUREN - 44572433C
2024/03/27 09:06:36

EKS | CSV: ESKU91ea2792-37bd-4d4a-80b0-1bca241f4217
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310